

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

Iragarki bidez jakinaraztea abandonatutako ibilgailua deklaratzeko prozedura hasteko ebazpena eta ibilgailua kentzeko errekerimendua

2026/688/S02.01.02.01 espedientea

Ezin izan zaio jakinarazpen pertsonalik egin Oyón-Oiongo udal-mugartean abandonatutako ibilgailuaren titular den merkataritza-sozietateari, jakinarazpen-ahalegina alferrikakoa izan baita hartzailea ez delako ezagutzen helmugako helbidean, eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, iragarki hau argitaratzen da, Lehendakariaren ebazpena jakinarazteko. Ebazpen horren bidez, abandonatutako ibilgailua abandonatutzat jotzeko prozedura hasten da, eta ibilgailua kentzeko errekerimendua egiten zaio titularrari.

Arabako Errioxako Kuadrilla izapidetzen ari den espedientea ikusita, bertan behera utzitako ibilgailu honi dagokionez:

a) Opel Vivaro, matrikula: 7070 FDX.

Aparkalekua: LosTrinos kalea 3.zkia (Oyón-Oion).

Uzte-data: zehaztugabea.

Titulartasuna: ibilgailu horren jabea.

Jakinarazten da administrazio-espedientea interesdunaren eskura dagoela, Arabako Errioxako Kuadrillako bulegoetan. Zehazki, Presidentziaren 2026-84 Ebazpena erantsi zaio espedienteari. Ebazpen horren bidez, abandonatutako ibilgailua deklaratzeko eta, hala badagokio, hondakin gisa kudeatzeko prozedura hasten da.

Iragarki honen bidez jakinarazten da, halaber, ebazpen horretan egindako errekerimendua, hamabost (15) egun naturaleko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, ibilgailua borondatez ken dezan edo egokitzen jotzen dituen alegazioak egin ditzan, eta ohartarazten zaio, bestela, hasitako prozedura izapidetzen jarraituko dela, eta dagokion ebazpena eman ahal izango dela, eskualdeko ordenantzaren 32. artikuluen eta aplikatu beharreko gainerako araudiaren arabera.

Izapide-egintza bat da, eta, beraz, ezin da administrazio-errekurtsorik jarri haren aurka, hartatik eragotzi gabe prozedura izapidetzean egin daitezkeen alegazioak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 53.1.e) eta 112. artikuluen arabera.

Guardian, 2026ko uztailaren 21ean

Presidentea

JOSE MARIA ELVIRA CEBALLOS